

## EUSKARA ESKURA TXARTELA

### Ikasleentzako informazioa

#### ZER DA?

Euskara Eskura Txartela Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren ekinbide bat da, bizkaitarren euskalduntzea sustatu eta doakotasuneranzko urratsak eman nahi dituen.

Euskara Eskura Txartela pertsonala da eta onuradunak berak bakarrik erabil dezake. Euskara **euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologaturen batean** ikasten duten bizkaitarrak izan daitezke onuradun, baldin eta, 2015-2016 ikasturteko bigarren deialdian edo 2016-2017 ikasturteko lehenengo deialdian, A1, A2, B1 edo B2 euskara-mailetako bat gainditu badute; hala, deskontu-bonua izango dute hurrengo ikasturterako. Lau Euskara Eskura Txartel mota daude:

- A1 motako Euskara Eskura Txartela, deskontu-bonurako eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatzen dutenei: gehienez 150 eurokoa izango da bonua.
- A2 motako Euskara Eskura Txartela, deskontu-bonurako eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatzen dutenei: gehienez 200 eurokoa izango da bonua.
- B1 motako Euskara Eskura Txartela, deskontu-bonurako eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatzen dutenei: gehienez 300 eurokoa izango da bonua.
- B2 motako Euskara Eskura Txartela, deskontu-bonurako eskubidea emango die maila hori gainditu eta egiaztatzen dutenei: gehienez 400 eurokoa izango da bonua.

**Euskara-mailak HABEK egiaztatuko ditu.** HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko azaroaren 23ko Aginduan ezarritakoaren arabera, eta ekimenaren oinarriekin bat; oinarriok berariaz onartu behar dira parte hartzeko eskabidea egiten denean.

**Programa honetatik kanpo geratuko dira euskara ikasteko eta hizkuntzan trebatzeko ikastaroak administrazio publikoek finantzatuta egiten dituzten administrazio horietako langileak; orobat geratuko dira programa honetatik kanpo euskara-maila egiaztatzeari buruzko baldintza betetzen ez duten ikasleak** (dela beste maila bat lortu eta egiaztatu dutelako, dela maila hori beste deialdi batean lortu dutelako, dela maila hori hizkuntza-eskola ofizialetan lortu

dutelako —txanda askean edo ikasle ofizial gisa—, edo dela maila hori HABEren erregistroetan inskribatuta ez dauden zentroetan lortu dutelako).

Ikasleak lortutako ziurtagiria ez bada programa honetan araututako baldintzak eta betebeharrak bete ondoren lortu, ikasleak lortutako agiria eta agiria eman duen erakundea zehaztu beharko ditu. Euskara Eskura Txartelak metatu egin daitezke, baldin eta kasuan kasuko mailak horretarako zehaztutako deialdietan gainditu eta egiaztatu badira.

#### NOIZ ETA NON ESKATU?

2017ko uztailaren 3tik 21era bitartean, [www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela) webean.

#### NOIZ ETA NON LOR DAITEKE?

Irailetik aurrera [www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela) helbidean. Egun zehatza irailen bertan zehaztuko da, ekimenaren webean.

#### TXARTELA ERABILTZEKO EPEAK

Euskara Eskura Txartela programari atxikitako euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan erabil daiteke, 2017-2018 ikasturterako matrikulazio-epea hasten denetik 2017ko urriaren 20ra arte (barnetegi iraukorretako ikastaroen kasuan, eta halakoentzat bakarrik, 2017ko azaroaren 7ra arte erabil daiteke).

Euskara Eskura Txartela behin bakarrik erabil daiteke; beraz, ikasleek ziurtatu behar dute azkenean matrikulatzen diren euskaltegian edo autoikaskuntzarako zentro homologatuan erabiltzen dutela bonua eta ez beste batean.

#### INFORMAZIOA

[www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela).

#### OHAR GARRANTZITSUA

Txartela lortzeko nahitaezkoa da Bizkaian erroldatuta egotea, errolda-ziurtagiria baliozkoa izatea eta indarrean egotea eskaera egiten den egunean, eskaneatu eta eskabideari erantsi behar zaio eta. Bestela, ezingo da eskabidea osatu.



## EUSKARA ESKURA TXARTELA

### Información para las personas alumnas

#### ¿QUÉ ES?

Euskara Eskura Txartela es una iniciativa del Departamento Foral de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia que pretende incentivar la euskaldunización de las personas alumnas vizcaínas, dando pasos en el camino hacia la gratuidad.

Euskara Eskura Txartela es un bono-descuento personal e intransferible para las personas alumnas vizcaínas de un **euskaltegi o centro de autoaprendizaje de euskera homologado** que hubieran superado y acreditado, en la segunda convocatoria del curso 2015-2016 y/o en la primera convocatoria del curso 2016-2017, los niveles A1, A2, B1 y/o B2. Se ofrecen 4 tipos de Euskara Eskura Txartela:

- Euskara Eskura Txartela tipo A1, que dará derecho a las personas que hubieran superado y acreditado tal nivel a obtener un bono-descuento que podrá tener un valor máximo de 150 euros.
- Euskara Eskura Txartela tipo A2, que dará derecho a las personas que hubieran superado y acreditado tal nivel a obtener un bono-descuento que podrá tener un valor máximo de 200 euros.
- Euskara Eskura Txartela tipo B1, que dará derecho a las personas que hubieran superado y acreditado tal nivel a obtener un bono-descuento que podrá tener un valor máximo de 300 euros.
- Euskara Eskura Txartela tipo B2, que dará derecho a las personas que hubieran superado y acreditado tal nivel a obtener un bono-descuento que podrá tener un valor máximo de 400 euros.

La **acreditación de los niveles correspondientes se realizará por HABE**, de conformidad con lo establecido en la Orden de 23 de noviembre de 2016 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se establecen los procedimientos de obtención de los certificados correspondientes a los niveles de competencia definidos en el Currículo Básico de Enseñanza de Euskera a Personas Adultas, y de conformidad con las bases de la iniciativa, que habrán de aceptarse al formular la solicitud de participación.

Quedan expresamente **excluidas del programa las personas alumnas que presten sus servicios en las administraciones públicas, y sean financiadas por estas en cursos de aprendizaje y capacitación lingüística en euskera**, así como aquellas personas alumnas que **no cumplan con el requisito de acreditación correspondiente** (bien porque hubieran obtenido y acreditado un nivel distinto, o lo hubieran obtenido en una convocatoria distinta, o porque lo hubieran obtenido a través de las Escuelas Oficiales de Idiomas, bien sea por libre o como personas alumnas oficiales, o en centros no inscritos en el Registro de HABE).

En el caso de que la persona alumna hubiera obtenido una acreditación diferente a la expedida por HABE, tras haber cumplido con todos los requisitos y obligaciones especificados en este programa, habrá de especificar el título obtenido y la entidad de acreditación correspondiente. Todas las Euskara Eskura Txartela se pueden acumular, siempre y cuando se hubieran superado y acreditado dichos niveles en las convocatorias especificadas.

#### ¿CUÁNDO Y DÓNDE SOLICITARLA?

Del 3 al 21 de julio de de 2017, a través de la página web [www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela).

#### ¿CUÁNDO Y DÓNDE OBTENERLA?

A partir del mes de septiembre en [www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela). La fecha exacta se determinará en septiembre en la propia web de la iniciativa.

#### PLAZO PARA UTILIZARLA

Podrá utilizarse Euskara Eskura Txartela en los euskaltegis y centros de autoaprendizaje de euskera homologados adheridos al programa a partir del comienzo del período de matriculación del curso 2017-2018, y hasta el 20 de octubre de 2017 (en el caso de cursos de internados permanentes, y únicamente en tal caso, hasta el 7 noviembre de 2017).

Euskara Eskura Txartela únicamente se podrá utilizar una vez, por lo que la persona alumna deberá asegurarse de que utiliza el bono en el euskaltegi o centro de autoaprendizaje de euskera homologado en que finalmente se matricule.

#### INFORMACIÓN


[www.bizkaia.eus/euskaratxartela](http://www.bizkaia.eus/euskaratxartela).

#### NOTA IMPORTANTE

Es imprescindible disponer de un certificado de empadronamiento en Bizkaia válido y vigente al realizar la solicitud, dado que se debe escanear y adjuntar a la misma. En caso contrario, no se podrá completar la solicitud.




Ikaslea izan eta ziurtagiria eskuratu




Beraz...


Hizkuntza Eskola –txanda askean edo ikasle ofizial gisa– edo HABEn inskribaturik ez dagoen zentro bateko ikaslea naiz



Euskara ikasteko eta hizkuntzan trebatzeko ikastaroak administrazio publikoek finantzatuta egiten dituzten administrazio horietako langilea naiz



Euskara-maila egiaztatzeari buruzko baldintza betetzen ez duen ikaslea naiz (dela beste maila bat lortu eta egiaztatu dudalako, dela maila hori beste deialdi batean lortu dudalako)



Euskaltegi, barnetegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatu bateko ikaslea naiz, eta, ekinbideak ezarritako epean, HABEren A1/A2/B1/B2 egiaztagiriak lortu ditut (edota –B1 eta B2 mailen kasuan– baliokidetutako egiaztagiriak lortu ditut)

